

Oroitzapenak

JUANJO OLASAGARRE - Sábado, 20 de Diciembre de 2014

<http://www.deia.com/2014/12/20/opinion/columnistas/zirrikituetatik-begira/oroitzapenak>

ASTE honetan aurkeztu den liburu baten harira *-Begirada ausartak* du titulua eta Trantsizioko gay eta lesbianen behakoak biltzen ditu- zein testigantza-oroitzen irakurri nahi nituzkeen oldozten aritu naiz. Lehendabizi gurasoenak, beti baitago ongi hemen zergatik gauden jakitea; patuaren zein ergelkeriagatik ibili garen harantz-honantz bizitza deitzen diogun katramila honetan. Bigarren, nire buruaren hil ondorengo oroitzapenak leitzea gustatuko litzaidake; badakizue azken orenean esandako hitzak, dotoreziari eutsi -ironia bat da noski- nion, minez hil nintzen eta gauza horiek. Asko gozatuko nuen, norbera ez da gai serioa, baina nitanoa hizkera indartsua da beti.

Hirugarren, Txelis etakidearen testigantza gustura hartuko nuke. Egunero pixka bat, eta federako konbertsioaren zatira ailegatzean otso-kolpe bat joko nuke, liburua braust batean bukatuz. PPko Oartzabalen testigantzak gosari bat baino gehiago alaituko lidakeela ez dut dudarik, eskuineko eta marikita, batera eta aldi berean, izateari buruzko argudiatze testualari erreparatzerakoan, seguru nago, kruasan zatia kafesnean eroriko zitzaidala harriduraren harriduraz. Arzallusenak ere irakurriko nituzke, badakit idatzita daudela, baina horiek ez, egiazkoak, ohe kontuak eta aipatzen dituzten horiek, ez dakit konfirmatua geldituko litzatekeen euskaldunon zeratze exkaxari buruzko topikoa. Dei nazazue ergel, baina Kirmen Uriberenak ere gustura leituko nituzke, arrakastaren koxka non dagoen ulertu nahian; berandu dena den, zaharra izango bainaiz idazten dituenenak. Beti interesatu zait gerra arteko Berlin, eta garai hartako Kurt Weill; zer zen han bizitzea, bertan musika egitea, judutarra izatea, garai haiek. Eta horretara jarrita, Leizarraga lehendabiziko euskarazko bibliaren itzultzailearen gorabeherak ere gustura leituko nituen. Gizon dotore irudikatzen dut, eta ez dakit zergatik gure aitonaren peto-petoa.

Nire laugarrengo teiltupekoarenak ere zer esanik ez, baina irakurri beharrean arakatu egingo nituzke, gaiztakeriaren arrazoen bila. Eta azkenik, Jainkoaren oroitzapenak -bai, badakit ez dagoela, baina nor esan du fikziozko pertsonaiek ez dutela libururik idazten?- Zergatik oker hau guztia? Zergatik?